

Aurkene Ortiz: «Ez da utopia Nafarroa osoa euskaltegi bihurtzea»

■ Nafarroako AEK-ko arduradunak matrikulazio kanpaina aurkeztu zuen atzo Iruñean

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

EUSKALDUN izan nahi dugulako, Euskal Herria euskaltegi bihurtu dugu. Horixe da AEKren aurtengo matrikulazio kanpainaren leloa. Aurkene Ortiz AEK-ko Nafarroako arduradunak horren aurkezpena egin zuen atzo Iruñean. Agerraldi horretan adierazi zuenez, «ez da utopia Nafarroa osoa euskaltegi bihurtzea»; izan ere, «Nafarroan ematen duena baino askoz euskaldun gehiago dago, eta nafar gizarteak esparru ezberdinetan behin eta berriz erakutsi du euskaldun izan nahi duela».

AEK-k Nafarroako gizartearen nahi hori bere egin du, eta, ohiturari jarraiki, ikasturte berriari begira Nafarroan euskaltegi zaharrak zabalik mantenduko ditu, eta, eskaeraren arabera, berriak zabaltzen saiatuko da herri guztietara heltzeko asmoz. Oso litekeena da urrian, besteak beste, Iruñeko Arrotxapea auzoan ikastetxe berria zabaltzea. AEK-k Nafarroako hamar eskualdetan dauzka euskaltegiak, eta joan den urteko urrian orotara 2.034 ikasle eman zuten izena horietan ikasteko. Aurten zenbaki hori oinarritzat hartuta, irailaren 26an burutuko den matrikulazio kanpainian gora egitea espero du AEK-k. X

Pedro Miguel Etxenikek eskuratu du Ikerkuntzarako Euskadi Saria

Sariak euskal ikerle baten lana nabarmentzea du helburu

Pedro Miguel Etxenike irakasle eta ikerleak eskuratu du Eusko Jaurlaritzak aurten estreinakoz banatuko duen Ikerkuntzarako Euskadi Saria. Sei milioi pezetako sari honek lanean diharduen euskal ikerle baten lana nabarmentzea du helburu.

Gorane Agirre / Bilbo

INAXIO OLIVERI Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, Dennis Chapman Londresko Unibertsitateko katedradun eta epaimahaiko lehendakariak, eta Felix Goñi Gasteizko Zientzi Politikarako zuzendari eta lehiaketako idazkariak eman zuten atzo Ikerkuntzarako Euskadi Sariaren irabazlearen berri.

Pedro Miguel Etxenike nafarra azalen fisikaren alorrean egin dituen lan garrantzitsuengatik saritu dute. Chapmanek atzo azpimarratu zuenez, «epaimahaia aho batez aukeratu du Etxenike, gainontzeko hautagaiekin alderatuta nabarmen-tzen zelako. Fisika tradizioan-laren zati handiena gasen fisika izan bada ere, Etxenikek azalen fisika landu du, hain zuzen ere partikula eta azalen elkarrekintza».

Egun EHUko Donostiako Kimika fakultatean Materia Kondentsatuaren Fisika katedra betetzen du Etxenikek. Duela 46



Pedro Miguel Etxenike azalen fisikaren alorrean egin dituen lan garrantzitsuengatik saritu dute.

OLALDE

urte Izaban jaiotako ikerle hau Nafarroako Unibertsitatean lizentziatua da Fisikan, eta Cambridgeko Unibertsitatean (1976) etaartzelozko Unibertsitate Autonomoan (1977) dok-torea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurten estreineko al-diz banatuko duen Ikerkuntzar-ako Euskadi Sariak, sei milioi pezeta, ikerkuntza zuzpertzeta du helburu. Urte bikoitietan sari honek zientzia eta teknologia alor-ak landuko ditu, eta bakoi-tietan humanitate eta gizarte zientziak.

Sari honetako epaimahaia

Euskal Autonomi Elkartekoak (EAE) ez diren zientzia munduko pertsonalitate garrantzitsuek osatu dute: Dennis Chapman; Jose Antonio Martin, Madrilgo Unibertsitateko Politeknikoko katedraduna; Pedro Pascual fisikaria eta Joan Rodes medikua,artzelozko Unibertsitateko katedradunak biak; eta Kai Simons, Heideberg-eko Biologia Molekular laboratoriorako ikerlea. Duela hilabete epamahiak 23 hautagaien zerrenda jaso zuen eta asteburu honetan bildu da sariduna aukeratzeko.

Goñik adierazi zuenez, «epaimahaikideek aho batez aukeratu dute Pedro Miguel Etxenike aurtengo saridun. Horrek ez du esan nahi gainontzeko hautagaiak txarrak zirenik; gertatzen dena da Etxenike oso ona dela, Euskadin zein beste edozein esparrutan. Ia bitxia gerta daiteke Etxenike bezalako ikerle bat izatea hemen».

Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) inguruan eratu den elkarte zientifiko garrantzitsua azpimarkatu zuen. Bere hitzetan, «komunitate honen adierazlerik onenak Gizateriaren ezagutzen hedapenaren abangoardian egiten dute lan».

Zentzu honetan, Oliverik azpimarratu zuenez, «euskal gara-pen zientifikoak hazkunde nabarmena izan du azken hamabost urteetan, Espainiako batez bestekoaren oso gainetik, nahiz eta azken hau ere oso maila altuan dagoen». X

EHUko gerentzia berregokitu du Pello Salaburuk

■ Karmelo del Valle orain arteko gerenteak dimisioa aurkeztu du

Erredakzioa / Bilbo

PELLO SALABURU Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektoreak gerentzia berregokitzeari ekin dio unibertsitatearen gestioa deszentralizatzeko eta, exekuzio organoak Errektoretzara hurbilduz, eraginkortasun administratiboa sakontzeko.

Ildo honetan, antolakuntzako gerentziaordetza desagertu egingo da eta orain arte betetzen zituen lanetako batzuk kanpusetako gerenteordeek beteko dituzte aurrerantzean. Era berean, arlo ekonomikoetarako idazkari-tza teknikoak ere desagertu egingo da eta bere zeregina gai ekonomikoetarako gerenteordearen esku geratuko da.

Berregokitze prozesuaren ostean, Karmelo del Valle orain arteko gerenteak dimisioa aurkeztu zuen joan den igandean, eraberruntze gerentziari osotasunean eragiten diola uste duelako. Errektoretzak atzo igorritako prentsa agirian jasotzen denez, «gerentzia eraberritzeko errektoreak hartutako erabakiak ez zuen gerentea kargutik kentzea aurreikusten, beregan konfiantza baitzuen». X

Kalitate plana sakondu nahi du Deustuko errektore berriak

Erredakzioa / Bilbo

HILAREN 27an Deustuko Unibertsitateko errektore kargua hartuko du Jose Maria Abrego de Lacy jesuitak, eta «Unibertsitateak aspalditik diseinatu duen ildoari segitzeko» asmoa iragarri du. Abregok Jesus Maria Egiluz, hargokada batez Deustuko errektorea izan dena, ordezkatuko du.

Abregok kalitate plana sakontzeko eta garatzeko asmoa iragarri zuen atzo. Bere ustez, «irakaskuntza, ikerkuntza, nazioarteko hitzarmenak eta gizarteak dituen arazoei hurbiltzea dira kalitatearen ardatz nagusiak. Unibertsitatea bere errektorea baino zerbait gehiago da. Errektorea aldatzeak Unibertsitatearen jardura dinamizatu besterik ez du egin behar».

Abrego de Lacyk esan zuenez, «Unibertsitateak ezin die arazo zehatzei irtenbide zehatzik eman. Ostera, gure aniztasuna eta barne elkarriketarako gaitasuna eskaini ditzakegu bakea lortzeko. Unibertsitate legez, Deustuko proiektuan zehaztutako irizpideen arabera pertsonak hezi behar ditugu, hau da, pertsona kritikoak, tolerantak, eta elkarriketarako eta taldean lan egiteko trebatuak». X

ESKELAK



(Paz de Ziganda Ikastolako zuzendaria)

Ikastoletan bizigarria genuen zure dizdira, ixilune hau Euskaraz Bizi aldarrikatzen ari da, Gure begi bat zu agurtzean lanbroz beteta jarri da, bestea pozik zuk utzitako ispiluari begira.

Jose Luis Gorostidi Mendieta


Ikastolen Elkarte
EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA



Arroxa Ibarra

Beti gogoan izanzen zaitugu.

E.L.H.E.ko eta BAIONAKO LAGUNEK



Gure eskuetan geratu da zurekin piztu den Argixoren kriseilua. Ez dadila inoiz itzali.

Jose Luis Gorostidi Mendieta

LASKORAIN IKASTOLA - EUSKARAZ BIZI

Tolosa, 1996ko irailak 10.



(Paz de Zigandako zuzendaria)

Sakoneko lainoz-gora tontorrek elurrez itsasoa iduri ametsezko ontziez... (Lizardi)

Jose Luis Gorostidi Mendieta

Beti arte
NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA (NIE)